

Jakinarazten da honako dekretu hau eman dela:

2026/25 DEKRETUA
2026/01/14

“Bergarako Txoko feminista proiekturako koordinatzaile lanpostua aldi baterako izendatzeko premia suertatu zela, Arrizuriaga erakinean udala garatzen ari den proiektua garatzeko asmotan. Horren aurrean, idazkaritzako administrazio orokorreko teknikariak proposatu zuen presazko deialdia egitea eta deialdi hori arautuko zuten oinarriak 2025eko abenduaren 3an onartu zirela alkate dekretu baten bitartez.

KONTUAN HARTURIK

Izena emateko epea amaituta, aurkeztutako hiru izangaiek ez dituztela oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen.

Guzti hau kontutan izanik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehena.- Bergarako Txoko feminista proiekturako koordinatzaile lanpostua aldi baterako izendatzeko deialdia hutsik aitortzea.

Bigarrena.- Erabaki hau udaleko web orrian argitaratzea.

Erabakiaren aurkako errekursoak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtoa edo administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtoa aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.
- Non: Alkatetzara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik.

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekursoaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekursoaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtoa, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da."

Eta behar diren ondorioetarako, jakinarazpen hau eman eta izenpetzen dut. Bergaran, sinadura datan.

IDAZKARIA
Xabin Juaristi Arrieta

